

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BUJANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Erroldak jendaurrean jartzea eta kobratzeko moduan jartzea

Kontzejuak, abenduaren 27ko bilkuran, honako hauen tasak ordaindu behar dituztenen 2017ko zerga errolda egin eta onartu du: etxeak edateko urez hornitzearenak, argiteriarenak, auzolanenak, ureztaketarenak, egur sortenak eta Bujandako lursailen errentamenduarenak. Horrela, bada, errolda jendaurrean jarriko da, hamabost egun baliiodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Bujandako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzean, errolda osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergei buruzkoak, 9. artikularen 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik. Dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete. Horretarako hilabete izango dute, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea 2018ko martxoaren 30ean hasi eta maiatzaren 30ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Helbideratutako ordainagiriak 2018ko apirilaren 5ean kobratuko dira kontzeptu guztiengatik, etxeak urez hornitzeko tasa izan ezik, uztailearen 16an kobratuko baita.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordaintekak:

Tasaren ordainteketa helbideratuta ez daukaten zergadunek edozein banku bulegoren bitartez ordaindu ahal izango dute, etxean jasoko duten kobrantza jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat emango du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordaintekak:

Bujandako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du kargua ordainteketa helbideratuta dagoen banketxeko kontuan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bujanda, 2018ko martxoaren 9a

Lehendakaria

JAVIER LÓPEZ DE LUZURIAGA GARCIA